


Euskal liburugintza 2002

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITALETXEAK



TITULUAK ETA TIRADAK



NOBEDADEAK / BERRARGITALPENAK / ITZULPENAK



HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA LIBURUAK



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



LITERATURA

Gaiak

Politika erlijio bihurtuta. Marxismo-leninismoa eta Faxismoa.

LUIS BANDRES

JAKiN

140

urtarrila
otsaila
2004




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Liburuak

Euskal liburugintza 2002 ► 11
JOAN MARI TORREALDAI

Gaiak

Politika erlijio bihurtuta.
Marxismo-leninismoa eta Faxismoa ► 127
LUIS BANDRES

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07


jakin@jakingunea.com

2004ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Summary




Basque Bibliography 2002

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes the catalogue of all the books published in Basque during 2002, together with an appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language. In 2002, 1,586 books were published in the Basque language, 98 more than in 2001. Most of these publications are school books (36%), followed by children's and young people's literature (21,5%), books on human and social sciences (16,5%) and literature for adults (15%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. ► JOAN MARI TORREALDAI



Politics converted into religion. Marxism-Leninism and Fascism

The professor Luis Bandres focuses his analysis on two ideological-political systems which have deeply marked the history of the 20th century: Marxism-Leninism and Fascism. In particular, Bandres points out that both projects have resorted to types of conduct and techniques similar to those of mythical and religious systems. ► LUIS BANDRES




e skuetan duzun hau bigarren aldiko 140. zenbakia da eta 2004. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* sailari dagokio zatirik handiena. Izan ere, Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren il-do beretik, 2002. urtean euskaraz argitaratutako liburuen katalogoa aurkezten digu.

Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da mugatzen, dena dela, liburuen zerrenda hutsa eskaintzera. Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du. 2002ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; bigarrenik, argitalpenaren zifren inguruan, argitaratutako tituluaren zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearen, 2002. urtean 1.586 liburu argitaratu ziren, 2001ean baino 98 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 568 (produktzio osoaren %36); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (344, %21,5), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (261, %16,5) eta helduen literatura-koak (238, %15). Azterketaren ondoren 1.586 tituluon zerrenda osoa dator.


Gaiak saila dator azken orrialdeetan, artikulua batekin. Bertan, Luis Bandres irakasleak XX. mendeko historia sakonki markatu duten bi sistema ideologiko-politiko aztertutakoak ditu: marxismo-leninismoa eta faxismoa. Zehazki, bi korrante horiek sistema mitiko eta erlijiosoek erabiltzen dituzten jokabide eta teknikak aplikatzeko izan duten jorara azpimarratu du Bandresek.¶

Ciburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 2002

11



Euskal liburugintza 2002



J O A N M A R I T O R R E A L D A I



*d*icebamus externa die, esan omen zuen Fr. Luis de Leon-ek bere kartzelaldia igaro ondoren irakasle gisa berriz eskolara itzuli zenean. *Mutatis mutandis*, lehengo lepotik burua, orain arteko lanari heltzen diodala nik ere esan nahi dut, iazko otsailaren 20ko gertakariak gorabehera.

Paper, dokumentu eta informazio asko konfiskatu ditate, sekula frogatu ezingo duten zerbait frogatzeko ustez, baina nire iritzian kalte egiteko, ni neu eta inguruak izutzeko; baina zorionez liburugintzarekin behintzat jarraitu ahal dut. Badut informazioa, baditut informazio iturriak, badut gogoia eta badut laguntza.

Ekonomia aldetik dudana laguntza Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiarena da, aurrean ere berriro didatena eta nik bihotzez eskertzen dudana. Laguntza honek balio bikoitza du niretzat: ekonomikoa, noski, baina ez gutxiago morala. Nire eskerrik suharrenak Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiari, berriz diot.

Aitzin ohar gisa

Berrikitan izan da iritzi trukaketa edo eztabaidarik euskal liburugintza dela eta. Ez da lehen aldia, ziklikoki

► **Joan Mari Torrealdei** Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziatua da.

plazaratzen baita eite honetako gairen bat, eta azken aldion behintzat ia beti gai berak.

Krisi hitza ere ahotan hartua izan da. Nahikoa ziklikoa da hitz honen agerpen publikoa ere.

Klasikoa eta ohikoa da, baita ere, konponbide edo soluzioen bila saiatu beharrean erru eta errudunen zerrenda egitea aurrena. Erakunde publikoek dute errua, argitaletxeek dute errua, irakurleek dute errua. Sinplifikatuz diot, noski. Errurik gabe dagoenak bota dezala lehen harria, esanez bazter genezake arazoa. Bai noski, hiru mundu horiek, erakundeak, argitaratzaileak eta irakurlegoak, hirurak daude inplikaturik, eta hirurek daukate zer esanik edo egirik, edo hobeto esan, hiruretan dago zer konpondurik.

Erakundeek, aho batez aitortzen da gaur egun, ez dute seriotan hartu liburugintza arazoa, ez baitira joan produktua diruz laguntzetik haratago.

Argitaletxeek ez dute bere profesionaltasuna erabili sektorea indartzeko. Inertzia eta aprobetxategien filosofia gehiegi suma zitekeen beren jardueran.

Merkatuan gauza asko bildu dira batera: irakurzaletasunaren atzeratzea oro har, euskarazko irakurleen militantziaren balio gehigarria gesaltzea, eta belaunaldi berriengan (ikastolatik eta alfabetatze-euskalduntzetik irten behar zutenengan) jarrita genituen espektatibek huts egin izana.

Anekdotatik haratago joan nahi bada, azterketa behar da, noski. Soluzioa eragozten duen traba nagusia ez dago argitaletxeen zekenkerian, zenbait argitaletxeren sekretismoan. (Zer da sekretismoa?, zer da datuak ezkutatzea?, zer eman eta zertarako?, batzuek bakarrik dute informazioa jendaurrean uzteko obligazioa eta besteek ez?) Arazoa, editorialgintzarena, sakona da, konplexua, detektatzen ez horren erraza, nahi bada, eta soluzio bidean jartzen oso zaila, seguru.

Azterketa behar da, bai. Baina batez ere soluzioa bilatzeko borondatea eta gogoia dira aurreneko baldintzak. Premiak akuilaturik aurkituko dugu irtenbiderik agian. Borondatea behar dute erakundeek editorialgintza ekonomikoki eta teknikoki laguntzeko. Borondatea behar dute euskal produktuak merkatuan sustatzeko, irakurzaletasu-

na bultzatzeko, eskolatik hasita. Euskal argitaletxeek prest egon behar dute, ez informazioa eskaintzeko bakarrik, baizik eta mugitzeko, aldatzeko. Informazioa edo honen falta ez da daukagun arazo nagusia. Gutxi edo asko datuak ezagutzen ditugu, edo gutxienez «usaindu». Zehaztasunak badu, hala ere, bere munta eta balioa, bai horixe; ez dut nik hori ukatuko, horretantxe saiatu izan naiz-eta nire bizitza osoan, kontuak zehazten, bereizten, ñabarduraz azaltzen. Baina azpimarratu nahi dudana bestea da: aurretiazkoa dela arazoa behingoz konpontzeko gogoia eta prestutasuna.

Arazoaz ari naiz, eta ez krisiaz (zer da krisia?). Ez dut uste krisia hitza egokia denik. Ez behintzat azken aldiko gaiak izendatzeko. Zeren eta aitortu behar baitugu azken aldion aipatzen dena lelo beretsua dela beti: liburu gutxi saltzen dela, eta tiradak behera egin eta egin ari direla.

Datuak zehatz-mehatz ezagutu gabe ere egia behar du izan liburuaren salmentaren beherakadak, denek aitortzen dutenez, Europa zaharrea behintzat. Zenbait datu ezagutu ere egiten dugu, eta gauza bera frogatzen dute, liburuaren batez besteko tiradak jaitsiz joan direla.

Har dezagun, kasurako, Espainiako kasua. Hasteko liburu irakurle-kopurua baxua du, 3.423, Italiakoarekin (5.600) edo Frantziakoarekin (8.000 pasa) alderatuta. Baina larriena ez da hori, baizik eta aldapa behera doala, noiz arte ez dakigularik: izan ere azken bost urteotan 19,4 puntu galdu ditu, edo 823 ale gutxiago atera ohi da liburuko.

Jarrai dezagun Euskal Herrikoa aipatuz. *Precisa* enpresaren datuak fidagarriak baldin badira, Euskal Herriko (zehazkiago esan, EAEko) datuak are okerragoak dira. EAEn, 1998tik hona, bertan ekoitzi diren euskarazko eta erdarazko liburuak batera hartuta, 991 ale gutxiago atera ohi da gaur liburu bakoitzeko, esan nahi baita 29,8 puntuz jaitsi dela tirada bost urtetan. Euskarazkoen jaitsiera ez da horren handia, 13,8 puntukoa baizik, hau da, liburuako 477 ale gutxiago. 2002 urtean, *Precisa*-ren arabera beti, euskarazko liburuaren batez bestekoa 2.960 ale-kopurukoa da. Nire ustetan egiazko tirada askoz apalagoa da. *Precisa*-ren datuak egia balira, non legoke krisia? Zera esango nuke nik,

euskarazko liburuaren batez besteko tirada 1.500/2.000 tartean dabilela.

Bidenabar esan dezadan, EAEko erdarazko liburuak larritasun handiago duela euskarazkoak baino, eta iruditzen zait oraingo krisi hotsak auzotik etorri zaizkiola euskal liburuari. Baina bitez ongi etorriak sektorea aintzat hartu eta abia berrian jartzeko balio badute!

Argitaratzaileen jarduera

Edizio agente ugari

Ez bat eta ez bi, 270 dira 2002 urtean libururen bat atera duten eragileak. Bakoitzari sei eskas dagokioke. Jakina da, ordea, batzuek ehundik gora atera duten bitartean beste batzuk liburu bakarrekoak direla. Asko argitaraturiko gutxi dago eta gutxi argitaratu duen asko.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	163
2-4	53
5-9	29
10-19	13
20-29	2
30-39	1
40-49	2
50-59	2
60-69	1
70-79	-
80-89	1
90-99	-
100-149	2
150etik gora	1

Izan ere, urtetik urtera agente editorialak (nolabait deitzearren) ugalduz doaz: aurreko urtean 242 izan baziren oraingoan are gehiago dira, 270. Euskal argitalpenaren barreriaketaz edo atomizazioaz entzuten diren hotsak ez dira gezurrezkoak, datu soil hau kontuan hartuta.

Precisa etxeak dio 101 direla Euskadin argitaletxe pribatuak. Etxe honek bere azterketatik kanpo uzten ditu EAEtik kanpoko argitaletxeak (nafarrak zein iparraldekoak),

eta kanpoan uzten ditu edizio publikoko agenteak, hauen artean Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta h a i nbat udal, ia 50 argitaratzaile.

Argitaratzaile eta tituluen erlazioa erakusten duen taula honek garbi uzten du zenbaterainokoa den atomizazioa. Garbi agertzen da bertan 270 horietatik gehienek, 163k hain zuzen, liburu bana atera dutela. Beste modu batera esanda, %60,4 da urte osoan liburu bakarra atera duena bere ekintza editorialean. Are nabarmenago gelditzen da eskasia taulako informazioa beste modu batera antolatuz: %90,7 dira (hortaz, 245 agente editorial) urte osoan hamar titulu baino gutxiago atera dituztenak; horietako gehienak, noski, titulu bakarra eta beste askok bizpahiru gehienez.

Taula beste aldetik irakurrita, zera ikusten da, alegia, urtean 10 titulu baino gehiago plazaratu dituztenak gutxi batzuk direla, 25, hau da, %9,2. Eta hauen barruan, 100 titulutik gorakoak hiru bakarrik dira. Dozena bat editorial dago 10 eta 20 tartean urteko ateratzen duena. Baina gero asko bakantzen da editorialgintza 20 eta 100 bitartean: bederatzi daude soilki. Nire ustez euskal liburugintzak, indarra izateko, hementxe beharko luke gerri lodia. Erdiko multzo hori indartzen ez den bitartean, buztinezko zangoak ditu euskarazko liburugintzak, edozein delarik ere titulu kopurua.

Bistan da taula honek interpretazio askotarako bide eman dezakeela, baina bada guztion adostasuna lor lezakeen bat: ahuldadea sumatzen da produkzioaren agenteen aldetik. Ekoizleen barreiaketa honek produkzioa igotzen du, hori bai, baina ez du bermatzen liburugintzaren etorkizuna. Izan ere, agente hauetako asko eta askoren bokazioa ez da liburugintza. Ekintza isolatuak eta puntualak dira argitalpenak. Hauetako asko ez daude profesionalki horretarako prestatuta lan txukun iraunkor bat egin ahal izateko.

Argitaratzaile motak

270 agente argitaratzaile horien artean mota askotakoak daude, bertokoak, kanpokoak, komertzialak, ezkomertzialak, publikoak, pribatuak, etab.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	53	808	50,9
Argitaratzaile publikoa	47	182	11,5
Elkarte, talde, fundazio, erlijio-etxe...	99	177	11,2
«Kanpoko»	20	181	11,4
Irakaskuntzakoa	17	40	11,8
Besterik	34	51	3,2

Taulak erakusten du zein ugari den, esaterako, elkarte, talde, fundazio eta enparauen multzoa, ehun bat dira. Urteko produkzioan %11,2 suposatu dute. Argitalpen publikoaren multzoa ere ez da txikia, ia 50, hauen artean udalak gehienak. Produkzioaren %11,5 zor zaie.

Bestalde, Unibertsitateak eta irakaskuntzaren munitzak ere osatzen du bere multzoa, 17koa, ekoizpenean %11,8ko ekarpena izan duena. (Bistan da multzo honen barruan sartu dugula Elkarlanean/Ikastolen Elkartearen arteko koedizioa, eta horrek duela pisu berezia kopuru honetan.)

Euskal Herriko mugetatik kanpo ekoiztiriko edo hango argitaletxe nagusi bati loturiko argitaratzaileen multzoa ez da hutsaren hurrengoa: 20 dira halakoak eta ekoizpenaren %11,4 suposatzen du beren lanak.

Multzorik handiena ez (53 dira) baina bai indartsuena da bertoko argitaletxe komertzial eta pribatuek osatua. Hauen emaitzak osatzen du produkzio osoaren %50,9. Nahi adina eztabaida daiteke, baina nekez uka azken hauen eskuetan dagoela euskal edizioaren berme behinena. Ikuspegi hori kontuan, nahiago nuke nik hauen indarra liburugintzan handiagoa balitz. Liburugintza politikak hori nabarmendu beharko lukeelakoan nago. Horregatik eta horretarako behar da enpresa editorialak indartuko dituen liburu politika.

Lehen hamaikak

Lehentasuna, kasu honetan, produkzioaren tamainari dagokio. Ondoko hauek dira, beste modu batera esan, 2002 urtean liburu gehien atera dituztenak. Salbuespen

bat edo besterekin, alegia, aparte utzita Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua eta Gipuzkoako Foru Aldundiko argitalgintza, biak ala biak erakunde publikoak direlako. Hortaz, zerrendan ateratzen diren lehen hamaikak elkarte edo enpresa pribatu komertzialak dira. Hauen artean, bada, dira lauzpabost kanpotik ari direnak edo kanpoko bati lotuak. Bada tartean, baita ere, irakaskuntzako elkarte baten eragina.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	66	118	184	11,6
Elkarlanean/ Ikastolen Elkartea	17	130	147	9,2
Ibaizabal	99	47	146	9,2
Erein	54	31	85	5,3
Ttarttalo	64	0	64	4,-
Anaya	0	58	58	3,6
Giltza-Edebé	21	24	45	2,8
Hiria	40	0	40	2,5
Zubia	30	2	32	2,-
Aizkorri	12	13	25	1,5
Alberdania	19	1	20	1,2
<i>Guztira</i>	<i>422</i>	<i>424</i>	<i>846</i>	<i>52,9</i>

Taula honetako eragileen izenak urte gehienetan errepikatu egiten dira, bat edo beste kenduta. Egonkortasunaren adierazle. Kontrakoa seinale txarra izango litzateke oso.

Egonkorra da, halaber, berauen emaitza titulu kopuruari dagokionez. Egia esan, hamaiken artean iaz baino 35 titulu gehiago atera dute, baina ezer gutxi da hori produkzioa hazi denarekin. Beste modu batera esanda, ekoizpena hazi bada ez da hamaika hauen lanari esker.

Ondorioz, produkzio osoaren gainean hamaika hauen lanak duen indarra apaldu egin da pittin bat: aurreko urtean %54,5 suposatu zuen hauen lanak eta orain %52,9. Aldea ez da handia, ez da nabarmena, baina seinalatzea komeni da urtero ari dela apurka-apurka beheranzko joera agertzen.

Argitaletxe indartsuenen lanagatik hazi ez bada produkzioa, zein da orduan eragilea? Aurreneko taulan begiratzea aski da galdera horren erantzuna izateko: benetan

hazi dena liburu bakarrekoen multzoa da, horrek esan nahi duen guztiarekin, esate baterako, hazkunde hori erlatibizatu egin behar dela, ez delako egonkorra noiz-behinkari hauen ekarpena.

Aurreneko hamaika hauen multzoa barnetik aztertuz, diferentzia ugari ageri da berauen artean, jatorriari edo kanpoko loturari buruz esandakoaz gainera. Bi adibide emango ditut.

Lehen adibidea itzulpenarena da, itzulitako liburuaren pisua zenbatekoa den alegia. Esaterako, lautik hiru itzulpena da Anaya eta Giltza editorialetan: %77,6 eta 75,5 hurrenez hurren. Bistan da jatorrizko izaerari dagokiola itzulpenarekiko dependentzia hau. Tarttalok are handiago du itzulpeneko joera, baina hori liburu mota suntsikorriari lotuta dago. Zubiakoen datuak ez ditugu osoki ezagutzen.

Apalagoa bai, baina altua da, hala ere, Ibaizabalen itzulpen politika: %40,4. Produktioaren batez besteko itzulpenak duen indar edo tamainan dabil beste hainbatena, hala nola, Hiria (%32,5), Erein (%32,1), Aizkorri (%28), Elkarlanean (%26).

Hamaika indartsuenen arteko barne desberdintasunetan bigarrena, eta nabaria, berrargitalpen politika da. Liburu berrargitaratuak erdia baino gehiago suposatzen du kasu batzuetan, adibidez, Elkarlanean (%64), Giltza (%53,3), Aizkorri (%52). Kasu berezitat hartu behar dira bi: Anayak ez du deus berririk landu aurten, berriz argitaratu eta kitto baizik. Bigarren kasu berezia Elkar/Ikastolen Elkarteak egindako koedizioa da: %88,5 dira berrargitaratuak, denak ikasmaterialak.

Kontrako muturrean daude beste argitaratzaile batzuk, berrargitalpen gutxirekin. Bi, gainera, batere gabe daude. Bat, Tarttalo, liburu suntsikorri argitaratzen baitu. Iraupen gutxiko liburuak dira hauek, definizioz. Ulertzen zail dena bigarren kasua da, Luis Haranburu Altunak gidatzen duen Hiria: Hiria seiluarekin 100dik gora titulu ditu, gehi beste seilupetan Luis Haranburuk argitara emanak dituenak, eta bada harrigarri berrargitalpenik ez egitea.

Ēskaintza editoriala

Titulu kopurua

2002 urteari dagokion titulu kopurua, nire datuetan, 1.586 da. Eta hortaz, 6,6 puntuko igoera izan du aurreko urtetik hona.


Zifra hauek ez datoz bat ISBNko espainiar agentziak ematen dituenekin. Agentzia horrek dioenez, 20 puntu jaitsi da euskal produkzioa 2002 urtean eta tituluak 1.221 dira. Gailegoen azpitik jarri gaitu oraingoan, hauei 1.498 titulu emanaz.

Sinesgarritasuna norberak du berea. Nire zifrek liburu bera dute iturri, eta ondoko zerrenda lekuko. Adiera hertsian jokotuta, kontadurietatik kanpo utz nitzakeen 37 titulu ISBNrik ez dutelako, baina ez dut horrela egin, liburu horiek merkatuko zirkuituetan normal korritzen dutelako. Beste horrenbeste edo gehiago bai utzi ditudala kanpoan, nahiz eta beraien fitxa osatu, merkatu irizpide hori betetzen ez dutelakoan hain zuzen. Nolanahi ere, beti geundeke espainiar agentziak eman dituen zifren gainetik. Eta zer esanik ez edizio elektronikoa kontabilizatu izan banu. (Aitor dezadan neure irizpideen esklabo bihurtu naizela neroni. Gero eta zalantza gehiago dut liburu mota hori ez kontabilizatzeke erabakiari dagokionez.) ISBNdun produktu horiek kontabilizatuko banitu, 40 gehiago lirajteke, bideo, soinudun grabazio, baliabide elektroniko eta CD-Rom. Liburu zerrendaren ostean agertzen da hauen zerrenda. Lehen aldiz ematen dut zerrendan, nahiz eta ez ditudan hemen kontabilizatu.


Precisa enpresak ere kopuru desberdinak eman ditu: 1.485 argitaratu direla dio, nik baino gutxiago baina ISBNk baino dezente gehiago. *Precisa* etxearen fitxa teknikoak dioenez, 101 argitaletxe pribatu aztertzen dira, EAEkoak eta pribatuak. Eta horietatik 41 dira gremiokoak eta 60 gremiotik kanpokoak. Erabili duen laginean gremiokoan 41etik 32 galdetegi aztertu dituzte, eta gremiotik kanpoetan 60tik 9 galdetegi (hots, %15). Azken hauen datuak osatzeko estimazioz jokatu dute.

Tituluak gora

Titulu produkzioa urtez urte




Arestian esan dugun bezala, gora egin du titulu kopuruak: 6,6 puntu, aurreko urtean baino ehun bat titulu gehiago. Eta horrela, produkzioaren gailurraren erpinean jartzen da aurtengoa, 1999koarekin batera. Taulak ongi erakusten du, perspektiban, zein den eboluzioaren joera, bi urteotan galduz joan ondoren nola egin duen berriro ere gora. Taulan nabarmentzen da, era berean, ekoizpenaren gorakada azken 5 urte hauetako fenomeno bat dela batez ere, 90eko hamarkadaren azken urteetan egin baitzuen jauzia.



Tituluen eboluzioaren indizea

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Ondoko grafikoa, azken hamar urteotan nobedadeen eta berrargitaraturiko liburuen bidea zein izan den ikusteaz gainera, urteroko produkzioan bakoitzak egin duen ekarpena ageri da. Eboluzio lerroak ikusbideratzen du nobeda-




de liburua %70-75 inguruan ibili dela eta %25-30 inguruan liburu berrargitaratuaren neurria.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

2002ko liburugintzan %70,8 izan da nobedade eta %29,2 berrargitalpen. Ohar gisa bada ere gogora dezadan hamaika argitaletxe handien kasuan oso bestelakoak zirela zifrak: erdi bana nobedadeak eta berrargitalpenak. Horregatik seinalatuko dut berriro ere zerikusi handia dagoela editorialaren finkapenaren eta berrargitalpenaren artean. Berrargitalpenik gabeko editorialak, tamaina batetik aurrera bederen, ez du egitura sendorik. Argitaletxeari buruz esaten den berbera esan daiteke liburugintzari berari buruz.

Berrargitalpenaren pisu handia dela eta, Frantziako liburugintza jarri izan dut eredutzat maiz. Berrargitalpe-


nak titulu kopurutan gainditu ohi zuen nobedadea. Bada, 2002an desagertu da abantaila hori: erdi bana daude nobedadea eta berrargitalpena, 29.000 pasa titulurekin baikoitza. Nobedadeak titulu batzuk gehixeago ditu, gainera.



Lehen ikusi dugu 2002ko produkzioak nola egin duen gora (6,6 puntu). Zeini zor zaio gorakada, nobedadeei ala berrargitalpenei, edo hobere, zenbat hauei eta zenbat haiei?

Nobedadeak

Nobedade liburuak hazkunde txikia izan du (3,4 puntu, 37 titulu). Berrargitalpenak ekarpen handiagoa izan



du urteko produkzioan: 15,2 puntu, hau da, 61 titulu. Maila honetako igoerak lehen ere izan ditu liburu mota honek. Normalean igoerak izan ditu, salbu iaz, grafikoan ere antzematen denez.

Berrargitalpenak

Bestelako kontsiderazioak aparte, berrargitalpenak liburuaren bizitza luzatzea dakar eta arrakasta soziala. Ez da berdin berrargitaldi bat izan, bi izan, edo hogeita bi. Berdin ez den bezala urte berean bizpahiru argitaraldi izatea.

Ondoko taulan ageri diren nobedadeak 1.130 dira, hots, ekoizpenaren %70,8. Gainerako titulu guztiek, eta 456 dira, berrargitaraldiren bat izan dute aurten. Horieta-ko batzuk bigarren berrargitaldia izan dute, multzo handienak hain zuzen, 191 liburuk.


Argitaraldi altuenak 23. edizioa izan du aurten, Iñaki Zabaletaren *110. Street-eko geltokia* eleberririk. Doitasunez mintzatuz, 25.a du, Elkarrek hartu aurretik Susak atera baitzuen bi bider. Itzulpen bat dator bigarren, 20. argitaraldia-ekin, J.A. Mujikak itzuliriko *Istanbul-en elkartuko gara*. Parean du Jon Arretxerren *Ostegunak*, urte berean bi ediziorekin, gainera. Beste datu esanguratsu bat: 12 argitaraldi edo gehiago dituzten obrak 24 dira aurtengo liburugintzan.

Maila apalagoan bai baina abiadura bizian doaz beste obra batzuk. Sei dira, izan ere, urte berean bi argitaraldi izan dituztenak. Are: Fernando Morilloren *Ortzadarra sutan* obrak bi argitaraldi izan ditu atera den urte berean, guztira hiru. Hiru argitaraldi berri (4/5/6) izan ditu 2002an Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* lanak, Espainiako Sari Nazionala jaso ostean.

Berrargitalpenen hierarkia

Lehen argitaraldia.....	1.130 titulu
Bigarren argitaraldia.....	191
Hirugarren argitaraldia.....	65
Laugarren argitaraldia.....	46
Bosgarren argitaraldia.....	32
Seigarren argitaraldia.....	26
Zazpigarren argitaraldia.....	14
Zortzigarren argitaraldia.....	18
Bederatzigarren argitaraldia.....	26
Hamargarren argitaraldia.....	18
Hamaikagarren argitaraldia.....	12
Hamabi argitaraldi edo gehiago.....	24

Jatorrizko eta itzulitako liburuak




Nobedadeen azterketaren baitan jatorriaren arabera egin ohi da bereizketa nagusia: euskaraz sortua izan ala erdaratik ekarria. Hamar urteko eboluzioaren berri ematen du grafikoak.


Jatorrizko liburua eta itzulpena nobedadeetan

Nobedadeen barruan euskal jatorriko liburuak %67,3 suposatzen du; eta itzulitakoak %32,7.

A urtegoan, iaz bezala bestalde, nobedadeetan euskal jatorriko liburuak ez da mugitu. Mugitu dena, gora mugitu ere, itzulitako liburuak da, 10,5 puntu. Nobedadeen



hazkundera, hortaz, itzulpenari zor zaio, ez euskaraz sortu-



riko liburuari. Jatorrizko liburuak jada bi urte badaramatza mantenduz, ez hazi eta ez jaitsi. 90eko hamarkadaren azken hiru urteetan igoera dezenteak izan zituen, baina geroztik kili-kolo edo makal dabil.

Jatorrizko liburua

Itzulpena


Hona hemen, hurrengo taulan, jatorrizko eta itzultako liburuaren artean dagoen erlazioa, bakoitzaren indarra, proportzioa, hamar urteko perspektiban, beste modu batera emana.

Urtea	Jatorrizkoa	Itzulpena
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	73,9	26,1
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6
2002	67,3	32,7

Itzulpenari zein tamaina dagokion ez dakit nik. Eztabaida hori ez da gaur egunekoa. Duela urte batzuk maki-

na bat hauts harrotu zuen, itzultzaile batzuen eskutik batetik bat.

Dakidana da, urtea joan eta urtea etorri, puntu batzuen gorabeheran, ehuneko 30 pasean dabilela itzulpena euskal produkzioan. Azken hamar urte hauetako batez bestekoa %34 da, eta aurtengoa %32,7. Ez naiz gauza balarazio zehatzik egiteko. Iruditzen zait, bateko, sorkuntza berrmatua dagoela; eta besteko, produktu berriak jasotzeko irekitasunak ere baduela aukera nahikoa.



Gaiak

Orain artekoan ezaugarri teknikoak arakatu ditugu, nolabait esan. Ezaugarri tematikoei errepasoa eman behar diegu hemendik aurrera.

Begiratu batean panorama bere osotasunean azalduko dugu, ondoko irudietan, gai sail bakoitzaren indarra eta proportzioa zein den alegia. Eta hori bi modutara, grafiko gisa eta lauki modura.

Gaien arabera


Gai multzoa	Zenb. absolutuak	%	2002/2001
Hezkuntza. Irakaskuntza	568	36,-	+ 28,4
Haur eta gazteentzako liburuak	344	21,5	- 14,4

Giza/gizarte zientziak	261	16,5	- 4,7
Helduen literatura	238	15,-	- 1,3
Aisia liburuak	83	5,2	+ 53,7
Zientzia. Teknika	66	4,2	+ 10,-
Besterik	26	1,5	+ 18,1

Laukian erreparatuz, argazkia eskaintzeaz gainera, gai sail bakoitzak iaztik hona izan duen bilakaera ere ageri da. Zehazte aldera esan genezake, aurrerakadarik handiena aisia liburuak izan dutela, nahiz eta zenbaki absolututan gutxi izan (igoera erlatiboa 53,7 puntukoa da, baina titulutan 29 soilki). Interesgarria da, izan, adierazten duen tendentzia. Duen pisu espezifiko hartuta, garantzi handiagoa du agian irakaskuntza liburuaren gorakadak (erlatiboki 28,8 puntu eta zenbaki absolututan 127 titulu).

Negatiboen kapituluan, bestalde, haur eta gazteentzako liburua da galtzaile nagusia (14,4 puntu edo 58 unitate), eta proportzio oso txikian giza eta gizarte zientzietako eta literaturako liburuak.

Urterokoa esan gabe ezin gara gelditu aurten ere: batetik, gaien egitura aldagaitza dela urte batetik bestera; zehatzago esan, aldaezina da liburu politika errotik aldatzen ez bada. Eta liburu politika ez da nabarmen aldatuko euskalgintzaren eta kulturagintzaren baldintza objektiboek bere horretan jarraitzen duten artean. Bestetik, gai sail bat-



zuk liburuz egoki edo nahikoa horniturik daudela ikusten da, baina beste batzuk anorexiak janda daude.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 568 titulu

Zertan harriturik ez da ikustean liburu mota hau dela denetan gailentzen dena, euskalgintzaren baitan ere euskal irakaskuntza baita lehentasuna duena. Liburu ekoizpenaren %36 dagokio berari.

Irakaskuntza, urtez urteko indizea

Iaz baino ehundik gora titulu gehiago sailkatu ditugu bertan. Seinalagarria da, baina ez azpimarratzekoa, gehiketa hau, iaz jada iragarri bainuen. Iazko azterketan idatzi nuen 2001eko irakaskuntzako liburuaren jaitciera koiunturala zela, berrikuntza pedagogikorako material prestakuntzaren urtea zelako. Normala da, hortaz, orain berriro gora egitea. Kontuan eduki behar baita liburu mota honen ezaugarrietako bat dela hezkuntza planetikiko menpekotasuna.

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	9,5
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	12,8
Lehen Hezkuntza.....	37,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	31,5
Euskararen irakaskuntza.....	7,4
Besterik.....	1,5
	<hr/>
	% 100

Sail honetako titulu gehienak ez dira sorkuntza alde-tik berriak, atzera argitaratuak baizik. Berrargitalpenaren pisuaren handia (%54,4) liburu mota honen ezaugarri propioa da. Merkatu gatibua izateaz gainera, urtero berriz-tatu edo aldatzen dena da, eta horri esker lortzen da berrargitalpenaren kontsolidazioa.


Itzulpena ez dago ausente. Liburu klase honen %31,3 itzulitakoa da, espainiar editoreen eraginez batez ere. Aitortu gabeko itzulpenik ere badela jakinda, itzulpenaren egiatzko indarra ez dakit nik zenbatekoa litzatekeen.

Irakaskuntzako liburuaren indargunea zein ikasmai-latan dagoen argi eta garbi ikusten da taulan. Lehen Hez-kuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak hartzen

dute gehiena, lehoiaren partea, %68,8rekin. Bi hauen pisua hazi egin da iaztik hona.

Haur eta gazteentzako liburuak: 344 titulu

Esan dezadan, gaian sartu aurretik, ez dela nahasi behar gai multzo hau haur eta gazteentzako literaturarekin.



Nahiz eta multzo honetako titulu gehien-gehienak literatur alomokoak izan, badira bestelakoak ere bertan sailkatuta.

344 titulu dira aurten hemen sailkatu ditugunak. Iaz baino gutxiago dira, 14,4 puntu gutxiago, hau da, 58 titulu galdu ditu sail honek iaztik hona, baina gutxi edo asko beste urteetako kopuru bertsutan mantendu da.


Urteko produkzioaren baitan ere pisu gutxiago du, 6,5 gutxiago, iazko %27 ordez %21,5 baitu orain. Azken urteotako baxuena da, egia, baina hamar urtera begiak zabalduz liburu mota honek urte horietan gutzietan izan duen batez bestekoa %21,8 da, ia oraingo berbera.

Haur eta gazteentzako liburuak

Berrargitalpenak pisua badu, izan, liburu mota honetan, baina ez espero zitekeen bestekoa, lautik bat berrargitaratzea ere ez baita lortzen.

Ezin da gauza bera esan itzulpenaren pisuaz. Itzulpenaren indarraren handia bai badela ezaugarri propio iraunkorra hemen, erdia baino dezente gehiago baita: %64,4. Beste modu batera esanda, erdal jatorria dute 10 liburutik 6k behintzat.

Informazioa osatze aldera esan behar da argitaletxe batetik bestera alde handia dagoela haur eta gazteentzako itzulpen politikan.



Giza eta gizarte zientziak: 261 titulu

Gai multzo honetan iaz baino pittin bat gutxiago argitaratu da. Hazkunde negatiboa izan du, 4,7 puntu behera.

Urteko produkzioaren gain duen proportzioa ere arindu egin da piska bat, iazko %18,4tik %16,5era.

Konstante bat da gai eremu honetan berrargitalpenarekin gertatzen dena, edo hobeto esan, gertatzen ez dena. %5,7 bakarrik da berrargitaraturiko liburua, 15 titulu soilki, eta horrelatsu urtero. Lehen ateraldiarekin hiltzen den liburuaz ari gara nonbait, eta hori ez da oso positiboa sail honentzat, bizialdi eskasa duela esan nahi baitu.


Giza eta gizarte zientzietako liburuak

Itzulpenak ere ez du ustez indar handirik, %18 bakarrik, baina zifra honek bestelako errealitatea ezkututzen duelakoan nago, bai baitakigu sail honetan kokatzen den liburu askoren jatorria erdara dela, nahiz eta aitortu ez; Administrazioaren hainbat liburutan, adibidez.

Administrazioko liburuez gainera beste asko kabitzen dira gai alor honetan, hala nola, politika, soziologia, filosofia, etnologia, zuzenbidea, artea, geografia, historia...

Filosofia eta psikologia.....	7,-
Soziologia eta estatistika.....	8,8

Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	9,5
Zuzenbidea. Administrazioa.....	12,3
Linguistika eta filologia.....	9,5
Geografia eta bidaiak.....	4,2



Historia eta biografiak.....	23,7
Etnologia.....	4,6
Edertia.....	13,8
Besterik.....	6,6

%100

Huskeriak gorabehera, urteroko lehentasun mailaketa bera aurkitzen dugu oraingoan ere. Alor nagusiak, historia, biografia, edertia eta zuzenbidea edo administrazioa dira, eta enparauak atzetik datoz.

Helduen literatura: 238 titulu

Literatura, urtez urteko indizea

Au retiaz kontsentsuatuta balego bezala funtzionatzen du honek: aurten ere iazko kopuru bera, hiru titulu gehiagoren aldearekin argitaratu da sail honetan. Hamar urteko batez bestekoa aintzat hartuz gero 217 da kopurua, baina azken urteotan 230 bueltan dabil. Aurtengo produkzioa, hortaz, sorpresa gabekoa da, normaltasunaren barruan dagoena guztiz.

Produktzioaren baitan duen pisua ere iazko beretsua da: %15. Egokia ote den? Inguruko liburugintzetara begiraturaz gero, komatxoen arteko normalizazioak proportzio altuagoa eskatuko luke. Baina agian gurean ezin dugu

gehiago lortu, hizkuntzaren urgentziek oraindik ere gure arreta eskatzen dutelako edo gure merkatuak ezin duelako gehiago irentsi. Ez dakit.

Berrargitalpenak %21,4 hartzen du, nire ustetan oso gutxi. Uste dut egoera askoz sanoagoa litzatekeela fikziozko liburuaren berrargitalpen proportzioa %40 gainetik balebil. Literatur liburuak gutxiegi irauten du plazan, jendearen eskuragai.

Itzulpenaren pisua are txikiagoa da: %12,8 nobedadeetan, eta berrargitalpen eta guzti %17,3. Honek esan nahi du literaturako 24 liburu berri bakarrik itzuli direla 2002 urtean eta 17 berrargitaratu.

Generoa egin ohi den sailkapenak ez du nobedaderik, proportzioen kantitateak kenduta. Aurten ere ez dira orkatu generoen arteko proportzioak. Uterero bezala erdia eta gehiago hartzen du berarentzat fikziozko narratibak: %53,3. Bigarren datorren olerkiari sekulako aldea kentzen dio, honek %17,2 hartzen baitu. Nobedadeetan bien arteko aldea ez da horren handia, askoz estuagoa baizik, %20 bat, ez gehiago. Berrargitalpenak jokatzen du narratibaren alde, berriz publikatzen den ia guztia narrazio liburu baita.

Eleberria. Ipuina.....	53,3
Olerkia.....	17,2
Antzerkia.....	7,1
Herri-literatura. Bertsoa.....	3,8
Saioa. Poligrafiak.....	10,6
Generoak nahasian.....	2,1
Besterik.....	12,5
	<hr/>
	% 100

Gainerakoak

Kapituluxka honetan, azken aldion, hiru gai multzo aurkeztu izan ditugu, horien artean erlijioa. Aurten ez dut aztertuko, trinkotasuna galdu duelako, oso lan gutxi biltzen duelako, frankismo garaiko lehen aldian, zentsuragatik eta gizartearen erlijiositateagatik, bera zenean punta-puntako gai multzoa.

Labur eta arin bada ere, ohiko beste biak aurkeztuko ditugu: Zientzia eta Teknika alde batetik; eta Aisia Liburuak bestetik.

Zientzia eta Teknika

Natur zientziak.....	27,3
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	22,7
Medikuntza.....	18,2
Ekologia. Ingurumena. Agronomia.....	20,-
Besterik.....	11,8
	<hr/>
	% 100

Natur zientzietan, medikuntzan, ingeniartzan edo nekazaritzan 66 titulu bildu ditut. Aurreko urtetik hona 10 puntu ditu alde. Bistan da kopuru hauekin ezin duela handia izan bere indarrak (%4,2) liburugintza osoan. Liburu mota honek ez du berrargitalpenik ia batere. Eta no-bedadeetan lautik bat itzuli egin da.

Aisia liburuak

Gastronomia.....	9,6
Musika. Antzertia.....	12,-
Argazkigintza. Margolanak. Zinema.	
Iratia. Telebista.....	44,5
Jostaldiak. Jokoak. Kirolak. Mendia.....	30,1
Besterik.....	3,8
	<hr/>
	% 100

Titulu kopurua ez da horren handia (83 titulu), hazkundera espektakularra izan bada ere: 53,7 puntu gora. Jauzia da handia, ez kopuru absolutua.

Interesgarria da euskarak bide hau egitea. Nahikoa berria bezain interesgarria da gure hizkuntzarentzat alor hauetan indarrean egotea. Indarrean egotetik urruti gaude, egia esan. Beldur naiz, gainera, zifra hauek erakusten duten indartxo bera ere ez dela guztiz egia, kontuan izan behar baitugu alor honetan esku-hartze handia duela edizio publikoak. ¶

Oharrak

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:
 - Tituluaren ostean eta parentesi artean:
 - i = itzulpena
 - b = berrargitalpena
 - e = elebikoa
 - Izenen artean:
 - / = itzultzailea
 - // = ilustratzailea (marrazkilari zein argazkilaria)
 - Izenaren ondoren:
 - * = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea
 - ** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea
 - *** = euskalki aldatzailea
 - [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.
2. Eskerrak emateko orduan fitxa bibliografikoak osatu ahal izateko laguntza eskaini didaten guztiak eskertu nahi ditut. Hasteko, liburuak eskura utzi dizkidaten argitaletxeak: Elkarlanean, Ttarttalo, Ibaizabal, Erein, Alberdania, Gaiak, UEU, Zubia, Pamiela, Giltza, Susa, Aizkorri, EFA, Euskaltzaindia, Baigorri, Getxoko Kultur Etxea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta beste zenbait, horien artean udaletxe batzuk. Fitxa bibliografikoak bidali dizkidaten editorialak ere gogotik eskertu nahi ditut. Ia denak dira, baina ez guzti-guztiak, harritzekoa bada ere. Ez dakit nik zenbait editorialen profesionaltasuna zer-nolakoa den, fitxak bidaltzeko ere gauza ez direnean.

Eskerron merezia zor diet Koldo Mitxelena Kulturuneko Agurtzane Juanenari eta Susana Araizi eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Urkiari, informazio bibliografiko esker gaitza eskuratzen baitidate.

Eta zertan esanik ez, nire esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiari luzatu nahi dizkiot, hasieran bezala bukaeran, lan hau burutzeko eman didan laguntza ekonomikoagatik.

2002ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	373	23,5
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museok	29	1,8
— Haurrentzako argitalpenak	344	21,7
1. FILOSOFIA	18	1,2
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	18	1,2
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	17	1,1
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	17	1,1
3. GIZARTE ZIENTZIAK	640	40,3
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	92	5,7
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	548	34,5
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	26	1,7
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	26	1,7
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	40	2,5
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etzeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	40	2,5
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	108	6,8
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	83	5,2
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	25	1,6
8. FILOLOGIA. LITERATURA	263	16,6
— Hizkuntzalaritza. Filologia	25	1,6
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	238	15,-
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	77	4,8
— Geografia	11	0,7
— Biografiak	44	2,7
— Kondaira	22	1,4
SAILKATU GABE	24	1,5
GUZTIRA	1.586	100

- «Berbeteari gatza eta piperra». ARRIEN, Eukene; ELORRIAGA, Yolanda; GALARZA, Maribi; GEZURAGA, Pedro Mari; JAIO, Nerea; URIARTE, Jon Andoni; ZABALA, Edurne//Egia, Mikel. Busturialdeko Hizkuntz Normal-kuntza. 21 x 15 cm. 79 or.
- «Mimodramak eta ikonoak» gidari estetikan barrena. ITURBIDE, Amaia. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz. 23 cm. 124 or.
- (In)komunikazioaren atarian: prentsa eta euskal gatazka. IDOIAGA, Pe-txo; RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. Alberdania. Irun. 22 cm. 292 or.
- 10 pauso alkohola eta beste drogen aurrean zure seme-alabeei laguntze-ko / 10 pasos para ayudar a sus hijos/as a afrontar el desafío del alcohol y las demás drogas. (e). OFFICE FOR SUBSTANCE ABUSE PREVEN-TION/Comas, Domingo; Santodomingo, Joaquin; Granados, Octavio*. Edex. Bilbo. 28 x 16 cm. 64 or.
- 100 metro. (b). SAIZARBITORIA, Ramon. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 136 or.
110. Street-eko geltokia. (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 152 or.
- 16 ipuin amodiozko. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Susa. Zarautz. 21,5 x 13,5 cm. 233 or.
- 191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamentu turistikoak, oporre-tarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituen / Decreto 191/1997, de 29 de julio, por el que se regulan los apartamentos turísticos, las viviendas turísticas vacacionales, los alojamientos en habitaciones.... (e). INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA (E.J.). E.J. Argital-pen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 17 cm. 99 or.
- 2002ko egitarau eta zerbitzuen gida / Guía 2002 de programas y servi-cios. (e). INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL. Arabako Foru Al-dundia. Gasteiz. 30 x 21 cm. 300 or.
- 25 urte Rosarenean: Rosa Valverderen atzera begirako erakusketa, 1977-2002 / 25 años en Rosa: una exposición retrospectiva de Rosa Val-verde, 1977-2002 [Erakusketa]. (e/i). VALVERDE LAMSFUS, Rosa / SAN MARTIN, Javier (testuak)/Mendizabal, Juan Mari; Pleyber, François//San-chez, Gonzalo (argazkiak). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 21 cm. 141 or.
- 3000 Hiztegia, euskara-gaztelania/castellano-euskara / Diccionario 3000, euskara-gaztelania/castellano-euskara (b/e). BOSTAK BAT TALDEA. Bostak Bat. Bilbo. 24 cm. 1679 or.
- 36'ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak: Lauaxeta, Lurgorri, Jo-se Peña (Aitza): Peñatar Josu (Aitza), idazle gazte su-izkillatua. Euske-razaintza. Donostia. 21 cm. 253 or.
- 50 urte jardunean / 50 años de rodaje. (e/i). GALAN, Diego/Mendikute, Marta I. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia; Ocho y medio. Donostia. 32 cm. 411 or.
- 8 artista paper gainean / 8 artistas en papel / 8 artistes sur papier [Era-kusketa] JAUREGI, Koldobika; LERTXUNDI, Mikel (testuak). Donostia Kultura. Donostia. 22 x 28 cm. 71 or.
- </jokoa.com>. (i). LLUCH, Gemma/Olano, Antton. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 173 or.

- Aberri Eguna: 70 años de fiesta y reivindicación.** (e). BARANDIARAN, Miren//Berruezo, Txetxu (argazkiak). Sabino Arana Kultur Elkargoa. [Bilbo]. 30 cm. 307 or.
- Abesten 4. Musikaren hizkera.** (i). GALOFRE, Francesca; ALEGRE VALLS, Anna; BONET, Narcis/Bilbao Urrutia, Itziar. Musicals Dinsic. Bartzelona. 31 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak VI (Batueraz).** (b). ATEKA, Piedad; GORROTXATEGI, Sabin//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adineko ezinduak zaintzen dituzten senitartekoen laguntza taldeak / Grupos de apoyo para familiares cuidadores de personas mayores dependientes.** (e). MARTIN DIEZ, Gloria. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 21 x 15 cm. 134 or.
- Adiskide mexikarra / Our mexican friend.** (e/i). ITURRALDE, Joxemari/Draper, Diane//Odriozola, Elena. Baigorri. Donostia. 22 x 22 cm. 32 or.
- Aditza - Conjuguer le verbe basque.** (e). ETCHEBARNE, Mixel. Elkarlanean. Donostia. 27 x 20 cm. 364 or.
- Administrazio publikoa: ikaslearen liburua.** SANTAMARIA, Susana; TORNERO, Roberto; VELASCO, Karmele. Elhuyar. Usurbil. 29 x 21 cm. 388 or.
- Adrian Moleren egunkari ezkutua.** (b/i). TOWNSEND, Sue/Mendiguren Bereziartu, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 244 or.
- Aena: Arte Garaikideko Bilduma / Colección de Arte Contemporáneo.** (e/i). ASKOREN ARTEAN/Share; Gipuzkoa Donostia Kutzako Euskara Zerbitzua//Loren, Pepe; Maura, Txema; Aena Fundazioa (argazkiak). Kutxa Fundazioa; Aena Fundazioa. Donostia; Madril. 27 x 21 cm. 115 or.
- Agendaroa 2003.** -/Zabala, Pello**. EHKME Fundazioa. Tafalla eta beste. 24 cm. 208 or.
- Agindutako lurraren bila: Testamentu Zaharreko istorioak (I).** (i). -/Mujika, Jose Antonio**//Garcia Lema, Alvaro. Erein. Donostia. 20,5 x 14 cm. 236 or.
- Agirre.** ZUBEROGOITIA, Aitor. Bibliotex. Bartzelona. 21 x 12 cm. 96 or.
- Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa). I: Zaharbertitze baten historia / La ferrería y los molinos de Agorregi. I: Historia de una restauración.** (e/i). AYERBE, M^a Rosa; DIEZ DE SALAZAR, Luis Miguel; IZAGIRRE, Manu; LOPEZ COLOM, M^a del Mar; UGALDE, Txomin; URTEAGA, M. Mercedes/Egibar, Eloi; Erkizia, Joseba; Etxeberria, M^a Luisa; Zumalabe, Koro; Larrañaga, Luis Mari/Lopez Colom, M^a del Mar; Urteaga, M. Mercedes**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 29 x 23 cm. 284 or.
- Agorregiko burdinola eta errotak (Aia, Gipuzkoa). II: Arkeologia esperimental / La ferrería y los molinos de Agorregi. II: Arqueología experimental.** (e/i). CREW, Peter; CREW, Susan; DILLMANN, Philippe; FLUZIN, Philippe; HERBACH, Richard; SERNEELS, Vincent; SIMON, Julia; URTEAGA, M. Mercedes/Egibar, Eloi; Erkizia, Joseba; Etxeberria, M^a Luisa; Zumalabe, Koro; Larrañaga, Luis Mari/Urteaga, M. Mercedes**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 29 x 23 cm. 193 or.
- Aguraingo Koadrilako ondare arkitektonikoa: elementu txikiak / Patrimonio arquitectónico en la Cuadrilla de Salvatierra: elementos menores (v. 2).** PALACIOS, Victorino. Aguraingo Eskualdea. [Gasteiz]. 30 cm.
- Ahatetxo itsusia.** (i). -/Susaeta. Susaeta. Madril. 22 x 17 cm. 12 or.

- Ahatetxo itsusia (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte).** (b). MURUA IRIGOIEN, Mitxel//Odriozola, Elena. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 19,5 x 16,5 cm. 28 or.
- Ahots isilduaren bahiketa.** FRIERA, Iñaki//Fernandez, Cristina. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 19 x 12,5 cm. 193 or.
- Ahunza eta zazpi antxumeak.** Erein. Donostia. 20 x 21 cm. 23 or.
- Aizak eta aizan elkarrekin dantzan.** LERTXUNDI, Anjel//Olariaga, Antton. Elkarlanean. Donostia. 24 x 17 cm. 176 or.
- Akapela.** (b). UHAINA; ELKARLANEAN. Elkarlanean. Donostia. 15 x 10 cm. 272 or.
- Akilino Amuategi (1877-1919).** (e). NARBAIZA AZKUE, Antxon. Eibarko Udala. Eibar. 30 x 21 cm. 208 or.
- Udako koaderno 1. Lehen Hezkuntza.** CASCANTE DIAZ, Alberto; VIDAL I COSIALLS, Josep Ramon//Gomis, Isabel; Guerrero, Andres; Minguillón, Cristina eta beste. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 28 x 22 cm. 95 or.
- Udako koaderno 2. Lehen Hezkuntza.** CASCANTE DIAZ, Alberto; VIDAL I COSIALLS, Josep Ramon//Gamis, Isabel; Guerrero, Andres; Minguillón, Cristina eta beste. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 28 x 22 cm. 95 or.
- Udako koaderno 3. Lehen Hezkuntza.** (i). VIDAL I COSIALLS, Josep Ramon; CASCANTE DIAZ, Alberto/Sarasola, Jose Antonio//Guerrero, Andres; Mendiola, Inma. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 28 x 22 cm. 95 or.
- Udako koaderno 4. Bigarren Hezkuntza.** (i). VIDAL I COSIALLS, Josep Ramon; CASCANTE DIAZ, Alberto/Zubeldia, Iñaki//Guerrero, Andres; Mendiola, Inma. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 28 x 22 cm. 95 or.
- Udal erakunde baten kudeaketa plana.** HIGOS, Iñaki; ORTIGOSA, Carlos; OYARZABAL, Carmelo. s.n. Elgoibar. 30 x 21 cm. 113 or.
- Udal ordenantza fiskalak eta prezio publikoak / Ordenanzas fiscales y precios públicos municipales 2002.** (e). OGASUN ETA ONDARE SAILA. Gasteizko Udala. Gasteiz. 24 x 17 cm. 436 or.

- Ukimenezko zeharrargitasuna: Miró, Leiris, Einstein / Translucidez táctil: Miró, Leiris, Einstein.** (e/i). PALERMO, Charles / GONZALEZ DE DURANA, Javier (testua)/Kerejeta Sarriegi, Maria Jose/Kerejeta, M^a Jose*. Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa. Gasteiz. 21 x 15 cm. 99 or.
- Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA.** Nafarroako Gobernua. Iruñea. 23 cm. 31 or.
- Ume hura eta agure hura.** (i). HERNANDEZ, Avelino/Izagirre, Koldo//Delicado, Federico. Kalandraka. Pontevedra. 23 cm. 34 or.
- Ume txikientzako kantu eta jolasak.** MADINABEITIA, Larraitz; PLAZAOLA, Estepan; EROSTARBE, Xabier. Bergarako Udala. Bergara. 16 x 16 cm. 64 or.
- Untxitxoak eskolara doaz.** (i). MATTEWS, Leslie/Bakun//McCue, Lisa. Ttarttalo. Donostia. 26,5 x 23 cm. 12 or.
- UPV/EHUko Gizarte Kontseilua: 1998-2002 / El Consejo Social de la UPV/EHU: 1998-2002.** (e). EHU/UPV. EHUko Gizarte Kontseiluaren idazkaritza teknikoa. Bilbo. 24 cm. 198 or.
- Ur handietan iraun: San Markos irakurtzen. B urtea.** BERISTAIN, Iñaki. Idatz. Donostia. 21 x 14 cm. 196 or.
- Uraren lanbidak: urarekin lotutako lanbideak Nafarroan. Iragana eta oraina.** HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA. Nafarroako Gobernua. Iruñea. 30 x 21 cm. 48 or.
- Urdaibaiko itsaspeko fauna eta flora.** PEREZ, Fernando Pedro eta beste//Pérez, Fernando Pedro (argazkiak). ADEVE, Iraungitzeko zorian dauden espezieak defendatzeko elkargoa. Bilbo. 21 x 15 cm. 255 or.
- Urdaibairen memoria.** (e). RUIZ DE VELASCO, Juan Antonio; ARRAZOLA, Agustin; OLARRA, Gotzone. Urdaibai Txatxi Elkarte. Pedernales-Sukarieta. 22 x 14 cm. 200 or.
- Uretan idatziak.** SALABERRI MUÑOIA, Patxi. Kutxa Fundazioa. Donostia. 21 x 13,5 cm. 70 or.
- Urkiolako Natur Parkeko perretxikoak / Setas del Parque Natural de Urkiola.** NEKAZARITZA SAILA. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 22 cm. 160 or.
- Urkiolako Parke Naturala, fauna eta flora.** PEREZ, Fernando Pedro eta beste//Pérez, Fernando Pedro eta beste. ADEVE, Iraungitzeko zorian dauden espezieak defendatzeko elkargoa. Bilbo. 21 x 15 cm. 255 or.
- Urolako tren, 1926-1986.** ARTECHE, Ignacio; ODRIOZOLA, Lourdes; OLAIZOLA, Juanjo. Azpeitiko Udala. Azpeitia. 27 x 22 cm. 473 or.
- Urrezko zuhaitza.** MUJIKA, Inazio; MUÑOZ, Joxean//Lopetegui, Jose Angel. Ttarttalo. Donostia. 22,5 x 20,5 cm. 36 or.
- Urruti Jauregiko Peirot. Pastoral: Altzurukun, 2002ko Uztailaren 28an, 2002ko Agorrilaren 10an.** (e). ETXART, Niko. Imp. de Arce. Mauleon. 21 cm. 102 or.
- Urtea joan, urtea etorri. (9. ikastunitatea). Ikaslearena (HEOK).** DORRONSORO, Mikel; EZEIZA, Joseba/Egaña, Juxto; Martinez, Begoña; Zabalá, Sabin**//Mantxola, Marisa. HABE. Donostia. 29,5 x 21 cm. 42 or.
- Urtea joan, urtea etorri. (9. ikastunitatea). Irakaslearena (HEOK).** DORRONSORO, Mikel; EZEIZA, Joseba/Egaña, Juxto; Martinez, Begoña; Zabalá, Sabin**//Mantxola, Marisa. HABE. Donostia. 29,5 x 21 cm. 53 or.

- Urtegi jauna.** EPALTZA, Aingeru//Urmeneta, Asisko. Pamiela. Iruñea. 19 x 13 cm. 157 or.
- Urtekaria 2001.** (i). –/Aisa Gómez, Javier. DLS Revista Mundial. Madril. 29 x 21 cm. 432 or.
- Urtxintxa 4. Ikaslearen karpeta 3. hiruhilabetea (4 urte).** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Belmonte, Jose; Fano, Daniel; Ortega, Manuel; Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 33 cm.
- Urtxintxa 4. Lan-koaderno 3 (Urtxintxa 4 urte).** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Belmonte, Jose; Fano, Daniel; Ortega, Manuel; Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 29 cm. 68 or.
- Urtxintxa 5. Ikaslearen karpeta 1. hiruhilabetea.** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Fano, Dani; Odriozola, Elena; Ortega, Manuel. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 33 cm.
- Urtxintxa 5. Ikaslearen karpeta 2. hiruhilabetea.** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Belmonte, Jose; Lucas, Jesus; Odriozola, Elena; Ortega, Manuel. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 33 cm.
- Urtxintxa 5. Irakaslearen karpeta 3. hiruhilabetea.** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Fano, Daniel; Gaztelumendi, Maite; Odriozola, Elena; Ortega, M. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 33 cm.
- Urtxintxa 5. Lan-koaderno 1 (Urtxintxa 5 urte).** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Elorza, Elena; Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Fano, Daniel; Odriozola, Elena; Ortega, Manuel. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 29 cm. 64 or.
- Urtxintxa 5. Lan-koaderno 2 (Urtxintxa 5 urte).** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Lucas, Jesus; Odriozola, Elena; Ortega, Manuel; Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 29 cm. 64 or.
- Urtxintxa 5. Lan-koaderno 3 (Urtxintxa 5 urte).** (b). OIARBIDE, Josi; SAENZ, Maite/Saenz, Maite**//Armspach, Marko; Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkartea. Donostia. 23 x 29 cm. 64 or.
- Uso bat gehiago.** EZKIAGA, Patxi. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 21 x 13,5 cm. 87 or.
- Usoa 1: Lehen kanpamendua.** ZUBIZARRETA, Patxi//Odriozola, Elena. Erein. Donostia. 21 x 13 cm. 109 or.
- Usoa 2: Zelatan.** ZUBIZARRETA, Patxi//Odriozola, Elena. Erein. Donostia. 21 x 13 cm. 109 or.
- Uste gabean. Bertso guziak: 1963-1993.** MATXAIN, Manuel. Sendoa. Oiarzun. 20 x 13 cm. 308 or.
- Van Gogh, bihotzean eguzkia.** GANTZARAIN, Xabier. Txalaparta. Tafalla. 19 x 13 cm. 62 or.
- Variaciones de piel.** (e). ANSAREO, Elsie. Ongarri Kultur Elkartea. Elgoibar. 27 cm. 79 or.
- Ventoux mendirako igoaldia, 1336ko apirilaren 26a / La ascensión al Mont Ventoux, 26 de abril de 1336.** (e). PETRARCA, Francesco / GON-

- ZALEZ DE DURANA, Javier; MADERUELO, Javier (testuak)/Iñigo Ruiz, Rosetta/Querejeta, M^a Jose*. Artium. Gasteiz. 21 x 15 cm. 79 or.
- Vestigios.** (e). COBO, Francisco E. / OLIVARES, Rosa (testua). Ongarri Kultur Elkarte. Elgoibar. 17 x 21 cm. 96 or.
- Victor Hugo: bicentenario [Erakusketa].** GEORGEL, Pierre; SORIA, Martin; DIEGO, Rosa de (testuak). BBK Fundazioa. Bilbo. 27 cm. 103 or.
- Vitoria-Gasteizko kaleetako eskulturak / Esculturas en espacios públicos de Vitoria-Gasteiz.** (e). ASKOREN ARTEAN/Horra, Araceli de la**. Gasteizko Udala. Gasteiz. 28 x 24 cm. 224 or.
- Vizcaytik Bizkaira? R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919).** KINTANA GOIRIENA, Jurgi. BBK Fundazioa; Euskaltzaindia. Bilbo. 21 x 14,5 cm. 180 or.
- Volkswagen zaharra.** ARISTI, Pako. Bibliotex.artzelona. 21 x 12 cm. 288 or.
- Vulkanoren atzamarrak. Rufino Arrola (1909-1996).** AMURIZA, Xabier. Euskal Herriko Trikitixa Elkarte. Zarautz. 21 x 15 cm. 100 or.
- Word 2000: testuen trataera.** AREIZAGA, Arantxa; BARBANCHO, Victor; GOÑI, Mikel. Elkarlanean. Donostia. 24 x 20 cm. 97 or.
- Xabierko Frantzisko (Komikia).** (i). BERZOSA MARTINEZ, Miguel Angel/Ituarte, Mari Eli//Berzosa Martinez, Miguel Angel. Gero-Mensajero. Bilbo. 29 x 22 cm. 48 or.
- Xaguxarrarena.** MITXELENA, Jokin. Aizkorri. Bilbo. 21 x 19 cm. 36 or.
- Xake Mate.** LADRON ARANA, Alberto. Elkarlanean. Donostia. 21,5 x 14 cm. 132 or.
- Xakea SARASUA,** Xabier. Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak. Deba. 16 x 24 cm. 123 or.
- Xalto ta Brinko Santakruzak ospatzen.** SUSPERREGI, Mikel//Casal, Mikel. Orratz! Kultur Elkarte. Lezo. 21 x 15 cm. 24 or.
- Xalto ta brinko Trapujalerekin Jaizkibelen.** SUSPERREGI OLAIZOLA, Mikel//Casal Patiño, Mikel. Orratz! Kultur Elkarte. Lezo. 21 x 15 cm. 24 or.
- Xalto ta Brinko udaleku irekian.** SUSPERREGI, Mikel//Casal, Mikel. Orratz! Kultur Elkarte. Lezo. 21 x 15 cm. 24 or.
- Xalto ta Brinko Zabarre pirataren itsasontzian.** SUSPERREGI, Mikel//Casal, Mikel. Orratz! Kultur Elkarte. Lezo. 21 x 15 cm. 24 or.
- Xaramela.** (b). ELKARLANEAN. Elkarlanean. Donostia. 15 x 10 cm. 316 or.
- Xiberoa: mendia eta kultura / montagne et culture / montaña y cultura.** (e/i). LARRANDABURU, Robert / IRIART, Jean-Do (testuak)/Goñi Goienaga, Mertxe//Larrandaburu, Robert (argazkiak). Gatuzain. Baiona. 26 cm. 136 or.
- XII. Beasain Idazlehiaketa 2001-2002. Saritutako idazlanak. DLH-DBH-Ertainak.** ASKOREN ARTEAN. Beasaingo Udala. Beasain. 23 x 16,5 cm. 238 or.
- Xivaren malkoak.** (i). MALLORQUI, Cesar/Aldasoro, Irene//Gimenez, Paco. Giltza. Sondika. 19,5 x 13 cm. 239 or.
- Xola eta basurdeak.** (b). ATXAGA, Bernardo//Valverde, Mikel. Erein. Donostia. 21 x 15 cm. 55 or.
- Xolak badu lehoien berri.** (b). ATXAGA, Bernardo//Valverde, Mikel. Erein. Donostia. 21 x 15 cm. 46 or.
- XV. Arrasate Lehiaketak.** ASKOREN ARTEAN. AED Kultura Elkarte. Arrasate. 29,7 x 21 cm. 55 or.

- XX. mendeko poesia kaierak. **Joan Mari Irigoien**. IRIGOIEN, Joan Mari/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Jon Arano**. ARANO, Jon/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 55 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Jon Mirande**. MIRANDE, Jon/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 60 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Joseba Sarrionandia**. SARRIONANDIA, Joseba/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 58 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Juan Kruz Igerabide**. IGERABIDE, Juan Kruz/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Juanjo Olasagarre**. OLASAGARRE, Juanjo/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Karlos Linazasoro**. LINAZASORO, Karlos/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 55 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Luigi Anselmi**. ANSELMI, Luigi/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 55 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Mikel Lasa**. LASA, Mikel/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Rafa Egiguren**. EGIGUREN, Rafael/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XX. mendeko poesia kaierak. **Tere Irastortza**. IRASTORTZA, Tere/Izagirre, Koldo*. Susa. Zarautz. 21 cm. 57 or.
- XXV urteko bidea. 1977-2002 / XXV años de historia. ASKOREN ARTEAN. Labayru. Bilbo. 29 x 22 cm. 63 or.
- Yako eta haizea**. ROZAS, Ixiar//Martiarena, Iñaki «Mattin». Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 127 or.
- Yon Oñatibia (1911-1979)**. KAZABON, Antton. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 23 x 22 cm. 24 or.
- Zaindu nazazu! / Necesito que me cuides. (e/i)**. MARTIN, Leticia; MORENO, Cristina/Atxukarro, Maider//Rodrigo, Oscar. Beroa. Donostia. 25 x 20 cm. 24 or.
- Zakurra, zeure laguna**. GARATE GOIHARTZUN, Gotzon. Elkarlanean. Donostia. 21,5 x 14 cm. 172 or.
- Zapatillak eta galtzak (Ikaslearen karpeta 3 - Urtxintxa 4 urte)**. (b). MURUA IRIGOIEN, Mitxel//Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkarte. Donostia. 19,5 x 16,5 cm. 28 or.
- Zape, katu jauna: Katu Jaun Txit Gorenaren zorionak eta zoritxarrak**. DIAZ ESARTE, Xabier//Matxinbarrena, Alvaro. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 61 or.
- Zaraitzuko uskara**. ARANA, Aitor. Hiria. Donostia. 26 x 20 cm. 133 or.
- Zatoz nire jaira (Meza umeei azalduta)**. (i). CONESA FERRER, Miguel Angel/Ituarte, Mari Eli//Berzosa, Miguel. Gero-Mensajero. Bilbo. 23 x 16 cm. 78 or.
- Zaudete geldi pixka batean**. (b). EGAÑA, Andoni//Olariaga Aranburu, Antton. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 120 or.
- Zazpi kolore**. (b). ARRETXE PEREZ, Jon//Fernandez Blanco, Cristina. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 136 or.

- Zazpi kontaera paradoxiko (I). Antropologo bat Marten.** (i). SACKS, Oliver/Agirre, Edorta. Gaiak. Donostia. 21 x 15,5 cm. 211 or.
- Zenbaki jokoa.** TTARTTALO; EGUNKARIA//Odriozola, Elena. Ttarttalo. Donostia. 24 x 24 cm.
- Zenbakiak.** (i). TODOLIBRO/[Ttarttalo]. Ttarttalo. Donostia. 16 x 19 cm. 12 or.
- Zenbakiak ala eleak: pedagogoak gogoan; Eko-logikoa.** TXARTERINA, Aitor//Txarterina, Aitor. Arzteblai. Elorrio. 21 x 13 cm. 62 or.
- Zer dakit? Autoebaluazioa 1. hiruhilabetekoa. 5 urte.** Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 21 x 15 cm. 8 or.
- Zer dakit? Autoebaluazioa 2. hiruhilabetekoa. 5 urte.** Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 21 x 15 cm. 8 or.
- Zer dakit? Autoebaluazioa 3. hiruhilabetekoa. 5 urte.** Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 21 x 15 cm. 8 or.
- Zer egin dezaket DBHren ondoren?: batxilergoa, lanbide heziketa, lanbide hastapena, musika, dantza, arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak eta helduen hezkuntza: 2002-2003 ikasturtea / ¿Qué puedo hacer después de la ESO?: bachillerato, formación profesional, iniciación profesional, música, danza, artes plásticas y diseño, idiomas, y enseñanzas de personas adultas: Curso 2002-2003.** (e). HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 168 or.
- Zer egin larrialdi baten aurrean? / Cómo actuar en casos de emergencia.** (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 18,5 cm. 44 or.
- Zeramika herrikoia Gipuzkoan.** (e). IBABE, Enrike//Lopez, Jose (argazkiak). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 28 x 21,5 cm. 120 or.
- Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin.** OLAIZOLA, Alaitz. BBK Fundazioa; Euskaltzaindia. Bilbo. 21 x 14,5 cm. 58 or.
- Zeren beldur zara?.** (b/i). MONREAL, Violeta/Aristondo, Ainhoa//Monreal, Violeta. Aizkorri. Bilbo. 21 x 19 cm. 36 or.
- Zergatik dauka dortokak oskola.** (i). EDIZIONE LAURUS/Kintana, Xabier. Librifera. Bilbo. 17 x 17 cm. 22 or.
- Zergatik egiten du urruma katuak.** (i). EDIZIONE LAURUS/Kintana, Xabier. Librifera. Bilbo. 17 x 17 cm. 22 or.
- Zergatik ematen du behiak esnea.** (i). EDIZIONE LAURUS/Kintana, Xabier. Librifera. Bilbo. 17 x 17 cm. 22 or.
- Zergatik kiribiltzen dira kirikinoak.** (i). EDIZIONE LAURUS/Kintana, Xabier. Librifera. Bilbo. 17 x 17 cm. 22 or.
- Zergatik Panpox.** URRETABIZKAIA, Arantxa. Bibliotex.artzelona. 21 x 12 cm. 64 or.
- Zergatik Panpox.** (b). URRETABIZKAIA, Arantxa. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 58 or.
- Zertaz dihardu filosofiak?.** ARRIETA URTIZBEREA, Agustin/Azurmendi, Joze**. Jakinkizunak. Donostia. 21 x 12,5 cm. 167 or.
- Zertaz doaz drogak?, zertaz doaz gazteak? / ¿De qué van las drogas?, ¿de qué van los jóvenes?.** (e/i). FLORES, Roberto; MELERO, Juan Carlos; SOTO, Mariñe/Servitext. Edex. Bilbo. 15 x 15 cm. 4 or.

- Zientzia eta teknikarako euskara: zenbait hizkuntza-baliabide.** ENSUNZA, Martxel; ETXEBARRIA, Jose Ramon; ITURBE, Jazinto. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo. 24 cm. 458 or.
- Zientiaren historia I: San Agustinen garaitik Galileoren garaira. Erdi Aroko zientzia, V. mendetik XIII. mendera.** (i). CROMBIE, A. C./Morales Balda, Koldo/Arrieta, Lorea*. Klasikoak. Bilbo. 24 x 15 cm. 320 or.
- Zientiaren historia XX. mendeko lehen erdian: Zientiaren historiografia IV.** BANDRES, Luis Mari. Gaiak. Donostia. 21 x 17 cm. 280 or.
- Zipriztin.** (b). ORMAZABAL, Joxantonio//Lucas, Jesus. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 132 or.
- Ziri eta Mara.** ETXEBARRIA, Ramon//Jesse. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 28 x 22 cm. 71 or.
- Ziripot eta Miel Otxin (Ikaslearen karpeta 2 - Urtxintxa 5 urte).** (b). MURUA IRIGOIEN, Mitxel//Torre, Almudena de la. Elkarlanean; Ikastolen Elkarte. Donostia. 19,5 x 16,5 cm. 28 or.
- Zorion perfektua.** LERTXUNDI, Anjel. Alberdania. Irun. 19 cm. 181 or.
- Zorrotz begiratutako trenak.** (i). HRABAL, Bohumil/Rey Escalera, Fernando. Elkarlanean; Alberdania. Donostia; Irun. 19,5 x 13 cm. 104 or.
- Zortzi kontakizun.** (i). SINGER, Isaac Bashevis/Navarro Etxeberria, Koro. Elkarlanean; Alberdania. Donostia; Irun. 19,5 x 13 cm. 232 or.
- Zozoa.** (i). -/Izagirre, Koldo/Rubio, Antonio*/Ferrer, Isidro. Kalandraka. Pontevedra. 23 cm. 32 or.
- Zuhaitzak / Arboles: Parque Tecnológico de Zamudio.** (e). BBK Fundazioa. Bilbo. 16 x 12 cm. 168 or.
- Zumaiako bertso eskola 20 urte kantari.** DORRONSORO, Juanito. Zumaiako Bertso Eskola. Zumaia. 21 x 21 cm. 109 or.
- Zumaiako portuaren azterlan historikoa: Zumaia, portu baten historia.** ODRIOZOLA OYARBIDE, Lourdes. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gas-teiz. 30,5 x 21,5 cm. 423 or.
- Zure bila itsasoa bidaliko dut.** PADRON PLAZAOLA, José Luis. Bermingham. Donostia. 22 cm. 16 or.
- Zuriñek beltza izan nahi du.** (i). CALLEJA, Seve/Zubeldia, Iñaki//Barkate, Nadia. Ibaizabal. Amorebieta-Etxano. 20 x 13 cm. 55 or.
- Zuzenbide zibila. Zati orokorra.** (b/i). CAPILLA, F. eta beste/Urrutia, Andres; Lobera Revilla, Angel/López, A.; Montés, V.L.**. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 22 cm. 635 or.
- Zuzendariaren zain.** GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 23 x 16 cm. 104 or.


Bestelako euskarrietako argitalpenak

- Ahozko Euskal Literatura. Bigarren Hezkuntza [CD-Rom].** OTAEGI, Lurdes; AZKUE, Joxin; GEREKA, Josune. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ondare arkitektonikoa. Erlijosoa [Baliabide elektronikoa].** ASKOREN ARTEAN/Lekuona, Iñaki; Gereka, Josune**. Ikastolen Elkartea; Eusko Jaurlaritza. Donostia; Gasteiz.
- Axelko. LMH. 1. zikloa [CD-Rom].** GEREKA IRURETAGOiena, Josune eta beste. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Bainua: Autobabeserako aholku erabilgarriak / Baño: Consejos prácticos de autoprotección [Bideoa].** (e). LARRIALDIEI AURREGITEKO ZUZENDARITZA. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Beleko. LMH. 3. zikloa [CD-Rom].** GEREKA IRURETAGOiena, Josune eta beste. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Beterriko kantak: Andoain, Amasa-Villabona, Larraul, Zizurkil, Asteasu eta Adunako kantak [Grabación sonora].** ASKOREN ARTEAN/Ibañez Mendikute, Leire*. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoain.
- Bideo didaktikoa: «Bertsoz Play 3/I». Lehen Hezkuntza. 3. maila [Bideoa].** LARRAÑAGA, Jabier; KAZABON, Antton; MENDIZABAL, Mikel. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Bideo didaktikoa: «Bertsoz Play 3/II». Lehen Hezkuntza. 3. maila [Bideoa].** LARRAÑAGA, Jabier; AIZPURUA, Mikel; MENDIZABAL, Mikel. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Bideo didaktikoa: «Bertsoz Play 3/III». Lehen Hezkuntza. 3. maila [Bideoa].** LARRAÑAGA, Jabier; AIZPURUA, Mikel; KAZABON, Antton. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Birraitonaren museoa I [Baliabide elektronikoa].** -/Lekuona, Iñaki**. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- EGA, 2001eko atariko probak. Entzuteko ulermena [Soinudun grabazioa].** HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Etxeko suteak: autobabeserako aholku erabilgarriak / Incendios en el hogar: consejos prácticos de autoprotección [Bideoa].** (e). LARRIALDIEI AURREGITEKO ZUZENDARITZA. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Eus Linux: 8.2 bertsioa [Baliabide elektronikoa].** HIZKUNTZA POLITIKARRAKO SAILBURUORDETZA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Euskal AE-ko kale-izendegia, 2001 [CD-Rom].** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz.
- Euskal jolasen bilduma 2: ipurtargien ganbara [Baliabide elektronikoa].** URTXINTXA ESKOLA. Eusko Jaurlaritza; Gipuzkoako Foru Aldundia. Gasteiz; Donostia.
- Euskal mitologian zehar. Izena duena, bada. I: Izadia gurtzen zenekoa [Bideoa].** LARRAÑAGA ALBERDI, Jabier; LARRAÑAGA ALBERDI, Jesus. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Euskal mitologian zehar. Izena duena, bada. II: Mari, lurraren jainkosa [Bideoa].** LARRAÑAGA ALBERDI, Jabier; LARRAÑAGA ALBERDI, Jesus. Ikastolen Elkartea. Donostia.

- Euskal mitologian zehar. Izena duena, bada. III: Iratxoeren artean [Bideoa].** LARRAÑAGA ALBERDI, Jabier; LARRAÑAGA ALBERDI, Jesus. Ikastolen Elkarte. Donostia.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-instituzioen xedapen bilduma 1981-2001 [Baliabide elektronikoa].** ASKOREN ARTEAN. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- Historiaurrea Euskal Herrian [Baliabide elektronikoa].** -/Iriarte, M^a Jose; Arrizabalaga, Alvaro*. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Idazki-ereduak: adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 legea, urtarrilaren 12koa / Formularios de la ley orgánica 5/2000, de 12 de enero, de responsabilidad penal de los menores [Baliabide elektronikoa].** JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Idazki-ereduak: alderdien idazkiak, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioak / Formularios: escritos de parte en la jurisdicción contencioso-administrativa [Baliabide elektronikoa].** JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Kantuketan [CD-Roma].** (b). WALIÑO, Josu eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (1) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (2) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (3) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (4) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (5) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (6) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (7) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (8) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (9) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.
- La historia en su lugar: nueva historia de España. (10) [Bideoa].** (i). MOLERO, Gabriel; SAGARRA, Anton; SANCHEZ, Mabel/Bitez/Echeverria, Jose**. Planeta.artzelona.

- Museos del mundo [Bideoa].** PLANETA. EDP. Bartzelona.
- Osasun larrialdiak [Bideoa].** LARRIALDIEI AURREGITEKO ZUZENDARITZA. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Ostadar I. DBH. 1. zikloa [CD-Rom].** ITURBURU YARZA, Ander eta beste. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Ostadar II. DBH. 2. zikloa [CD-Rom].** GEREKA IRURETAGOIENA, Josune eta beste. Ikastolen Elkartea. Gasteiz.
- Otsoko. LMH. 2. zikloa [CD-Rom].** ITURBURU YARZA, Ander eta beste. Ikastolen Elkartea. Donostia.
- Piratekin HIZKUNTZAREN munduan 2 [CD-Rom].** GOITIZ, Gotzon eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- Piratekin MATEMATIKAREN munduan 2 [CD-Rom].** GOITIZ, Gotzon eta beste. Elhuyar. Usurbil.
- Teknologiaren gailurrean: teknopolis [Bideoa].** ARAOLAZA, Oier eta beste. Elhuyar. Usurbil.

Gaiak



LUIS BANDRES

Politika erlijio bihurtuta
Marxismo-leninismoa eta Faxismoa

127

Politika erlijio bihurtuta

Marxismo-leninismoa eta Faxismoa



L U I S B A N D R E S



*d*akigunez aspaldidanik gizakia erlijioaren bitartez bere aurrean zeuzkan galdera sakon batzuei erantzuna ematen saiatu da. Bestalde erlijio guztiek, beren lanetan arazoimenaren gainera, sinesmenaren, sentimenduen esparruan murgilduz, beren teknika eta sistema bereziak garatu dituzte.

Aldiz, politika, Frantziar Iraultzatik gutxienez eta berari dagozkion arazoak gainditzeko, zerbait razional bezala plazaratu da. Halaz ere, bukatu berria den XX. mendean bi sistema politiko indarrean ezagutu dira, marxismo-leninismoa eta faxismoa, non beren helburuak aurrera ateratzeko erlijio (edo hobeto esanda sasierlijio) bihurtzen saiatu baitira. Lerro hauen bitartez, adin batekoentzat oso bertatik ezagutu duguna eta gazteagoentzat, agian, zerbait antzina-koa bezala dena, baina XX. mendea hain sakonki markatu zuena, hasi berria den XXI. mende honetan gogoratzea, ezagutzea eta aztertzea egokia iruditu zait.

*M*arxismo-leninismoa

Sasierlijioetan lehenengoa, sozialismo marxista-leninista orduko Sobiet Batasunean eta Alderdi Komunistan gauzatu zen batez ere. Berez, pentsaera marxistak alde

► **Luis Bandres** EHUko Ingeniaritza elektrikoa Saileko katedraduna da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko diputatu ohia.

aurretik mendearen hiru laurden hartu zituen eta sozialismoak gehiago. Baina Errusiako Iraultzaren efektu hordi-garrien bitartez, doktrina kredo bihurtu zen eta Mendebaldean zenbait intelektuali eta idealistari behar zuten ametsa eskaini zitzaion.

Doktrina marxista-leninistak ofizialki erlijio guztiak gaitzesten zituen. Hala eta guztiz ere, marxismo-leninismoaren eta erlijio eratuaren arteko itxura eta funtzionamendu kidetasunak hor daude. Kidetasun horiek argi eta garbi izan dira. Baina agian hain garbi ez dagoena honakoa da: sobietar doktrina zenbateraino saiatu zen, ondo kalkulaturik, noski, ez erlijioaren itxura eta funtzionamendua bereganatzen bakarrik, bera erlijio bihurtzen ere bai baizik. Leninek, manipulatzailerik oso sutu eta maltzurra zenez, psikearen beharrak ongi ezagutzen zituen, eta bere sistema gizakiaren eragin erlijiosora egokitze beharraz konturatu zen.

Alde horretatik, beste askok bezala, Leninen pentsararak Marxi baino Bakunini zor handiagoa diola esan daiteke. Leninek berak bere oharretan onartzen duenez, bere alderdi iraultzailearen eraketa, erreklutatze era, jarraitzaileen leialtasuna behartzeko teknika eta zirrara mesianikoa Bakuninengandik zuzen-zuzenean etorritakoak dira. Baina Bakuninentzat iraultza fenomeno politiko eta soziala baino gehiago zen: zerbait kosmikoa, nolabait erlijiosoa. Bakuninek, hogeit hamar urte baino gehiago framazoneriaren egituraren bere ahaleginari esker aurrera egin ondoren, bere ideia sozial eta politikoen esparru filosofiko-metafisikoa barneratuta zeukan. Nahiz eta Leninek inoiz esplizituki horrelako alde metafisikoa onartu ez, ezbairik gabe bere erabilgarritasuna oso ongi ezagutzen zuen. Horregatik bere eskuetan boltxebismoa alderdi edo mugimendu politikoa baino askoz gehiago izan zedin saiatu zen, hots, erlijio sekular bilakatu eta zentzuaren barneko beharrei kasu egiten saiatu zen. Helburu horri heltzeko, sinesmen erlijiosoren lanabesak hartu zituen.

Stalinekin, zinismo handiagoz, lanabes hauek guztiak bereganatu zituen. Stalin Tbilisiko apaizgaitegi teologikoko ikasle izandakoa zen eta, horrez gain, garai batean XX.

mendeko guru, azti edo maisu espiritual handienetako baten (G.I. Gurdjief-en) familian bizi izan zen. Iturri horretatik Stalin zirrara erlijiosoaren eraginaz jabetu zen, bai eta nola bizkortu eta manipula zitekeen ere. Beraz, ez gaitu gehiegi harritu behar dudarik gabe erritu erlijioso diren teknikak nola erabiltzen zituen ikustekak. Ondoko testu liturjikoak, bere erresponentsu-tankerako erantzunekin, ez da erritu erlijiosoaren parodia, askoz gehiago baizik, hots, berezko erritu erlijiosoa.

Lenin burkidea gugandik joan zenean Alderdiko partaideen bokazio handia argi eta garbi mantentzea agindu zigun.

Zure agindua ohorez beteko dugula zin dagigu, Lenin burkidea!

Lenin burkidea guregandik joan zenean Alderdiaren batasuna gordetzea agindu zigun.

Zure agindua ohorez beteko dugula zin dagigu, Lenin burkidea!

Lenin burkidea guregandik joan zenean Proletalgoaren diktadura gordetzea eta areagotzea agindu zigun.

Zure agindua ohorez beteko dugula zin dagigu, Lenin burkidea! (Payne, R., *The Life and Death of Lenin*, New York, Simon & Schuster, 1964, 609-610 or.)

Stalin Leninen heriotzari sistematikoki kutsu edo alde erlijioso handiena ateratzen saiatu zen. Horren arabera, Leninen gorpua Sindikatuen Etxeko Zutabe Aretoan erakusgai jarri zuen lau egunetan. Bitartean milaka eta milaka lagun errenkadan zeuden zain, zero azpiko tenperatura hotzak jasaten, zerraldoaren aurretik pasatu ahal izateko. Agintari boltxebike asko zeharo harrituta gelditu ziren disimulu gabeko emozio edo zirrara erlijioso haren aurrean.

Sobieten Bigarren Batzarrean Lenin ia Jainkoaren mailaraino igotzea erabaki zen. Horregatik, honako erabakiak hartu ziren: haren heriotzaren urtemuga lutu nazionaleko eguna izatea; Sobiet Batasuneko maila bateko hiri guztietan Leninen estatua altxatzea; bere gorpua, baltsamatu ondoren, antzinako Asiria edo Babiloniako piramide mailakatuaren antzeko eraikin berezian Plaza Gorrian jendeak ikus zezan ipintzea... Hau guztia bere burua ate-

otzat, erabat razionalistatztat, guztiz sekulartzat daukan sisteman aurkitzea ez da erraz ulertzen; are gutxiago baldin eta sistema hori erlijio-era guztien kontra eta «pertsonalitatea gurtzearen» aurka dagoela aitortzen badu.

1930eko hamarkadan batez ere, Alderdi Komunistako partaide izatea mistikarekin zegoen lotuta, mistika sasierlijioso edo erlijioaren ordezkorekin. Alderdira sartzeko bidea, mazoneriara sartzekoa bezala, errituz beterik zegoen. Haurrekin, batik bat, barneko bultzada erlijiosoa pizten saiatzen zen, gero sistematikoki alderdiaren interesetarako bideratzeko. Horregatik, haurrentzat, bederatzi urterekin «aitzindari»-taldera sartzea berebiziko gertaera zen, igarotze-erritua, argi eta garbia; lehen Jaunartzea antzekoa, esaterako. Haurrari itxura liturgikoko zenbait boto eta promesa atera ondoren, «aitzindari» berriari, talisman sakratu gisa, zapi gorria ematen zitzaion eta oihal-puska hura bere ondasun preziatuena zela esaten zitzaion. Gorde eta ondratzea agintzen zitzaion eta berak, ez beste inork, ukitu behar zuen. Zapi gorri horretan iraultzaileen odola «gorpuzten» zela esaten zitzaion, hau da, zapi gorri horrek kristautasunean gurutzeak duen eginkizunaren antzekoa betetzen zuen, hots, alderdi erabat erlijiosoa zuen.

Sobiet Batasunean nahiz beste parteetan, bere posizioa indartzeko eta areagotzeko, Alderdi Komunistak 1930eko hamarkadan doktrina marxista-leninista erlijio-mailara eraman zuen. Eta nahiz eta hitzez erlijioa ezeztatuta zegoela esan, benetan egin zena honakoa izan zen: erlijio baten ordezkari bat jarri nahi izatea. Baina edozein erlijio adimen hutsari baino zerbait gehiagori heldu behar dio, eta zerbait horretatik nolabaiteko erantzuna jaso behar du. Hau da, buruaz gain bihotza irabazi behar du; bame-barneko emozio-beharrei aurre egin eta, bide batez, nolabaiteko sentimendu humanistiko eta logikoa izan. Gizakiaren alde irrazonala kontuan hartu behar du eta giza dimentsioari dagozkion galdera sakonei erantzuna eman: maitasun-nahiari, heriotzarekiko beldurrari edo bakardadearen aurreko larritasunari, esaterako.

Erljioaren eta ideologia eta filosofiaren artean sakoneko desberdintasuna dago. Nahiz bere xedea edo helbu-

rua izan, doktrina marxista-leninista inoiz ez da ideologia besterik izan. Bere abstrakzioarengatik, bere emozio-antuztasunarengatik, gizakiaren barneko premiei erantzuten ez du asmatu, premia horien balioa ez du onartu eta premiak berak ere ez ditu ulertu. Alde horretatik begiratuta, marxismo-leninismoa psikologikoki oso inozoa izan da. Era sinpleaz honakoa jakintzat ematen zuen: gizakiaren barneko beharrik asetzeko tripa betetzearekin eta logikaz egindako kredoarekin aski zela. Beraz, ogia eskaini zuen eta, horrekin batera, ekoizpen, balio ekonomiko eta ogi horren banaketari buruzko teoria. Bestalde, Historia (honela letra larritz idatzita) lege absolutu gisa ere eskaini zuen.

Baina berriro ere antzinako esaldia berriz gogoratu behar da: «gizakiak bizi izateko ez du aski ogia», ez eta ogiari buruzko teoria ere. Horregatik, laneko alienazio, lanaren eta kapitalaren arteko erlazio, dialektika, klase-borroka edo aberastasunaren banaketa edo antzeko kontzeptuek ez dute inongo bihotz-erantzunik sortarazten. Gizakiak dauzkan beste «gose»-era batzuei, nahi bada ez hain ongi definitutakoei, baina bene-benetakoak direnei (hala nola, kosmosean bere kokapena ulertzeari, bere «arima-lasaitasunerako» gogoari, bere jaiotzaren eta heriotzaren zergatiari, esaterako), materialismoak, oro har, eta marxismoak, bereziki, ez zien erantzunik ematen. Beraz, zailtasun guztien gainetik erlijioek, Sobiet Batasunean nahiz gainerako herri komunistetan (Polonian, Txekoslovakian...), tinko jarraitu zuten, esandako barneko hutsune hori nola edo hala betetzeko.

*F*axismoa

1930eko hamarkadan plazaratutako beste sasierlijio bat mugimendu totalitarioen multzoa, gaur egun faxismo deitzen dieguna, izan zen. Italian faxismoaren jatorrizko bertsioa, Mussolinik aldarrikatzen zuena, ez zen erlijioaren mailaraino iritsi; ideologia baino ez zen izan. Erlijioaren ohizko eginkizuna Eliza Katolikoari utzi zitzaion eta, ondorio bezala, Italiako faxismoa, beste zenbait lekutan

gertatutakoarekin alderatuz, fenomeno nahiko hutsa baino ez zen izan.

Espainian Francok ezarri zuen faxismoaren erak Eliza Katolikoarekin barmetik bat egiteko ahalegin sakinak egin zituen eta uztarketa horren ondorioz jainkotiar agintearen itxura bereganatu zuen. Beraz, bere italiar balio-kideak baino indar eta dinamismo askoz handiagoa lortu zuen, eta, bide batez, fanatismo erlijiosoak bakarrik eman dezakeen ankerkeria ere bai. Alderdi askotatik eta denbora pasatu ondoren, Mussolini ia irrigamia bada ere, Franco Espainian ezarritako zapalketarekin askoz makurragoa da.

Baina sasierlijio bihurtutako eskuineko totalitarismoaren adibide gorenalemanian nazia da. Italiar faxismoa ez bezala, nazismoa ez zen filosofia edo ideologia hutsa.

Faxismoaren espainiar era ez bezala, nazismoa ez zen kredo erlijiosoren batekin uztartu. Aldiz, era nahiko sistematikoa, ezarritako erlijioen interesak eta balioak ordezkatzuz edo bereganatuz, berak erlijio berri bihurtu nahi izan zuen.

Bigarren Mundu Gerraren bukaeratik urte-mordaba iragan bada ere, Adolf Hitler, Alderdi Nazia eta Hirugarren Reich-aren fenomeno adierazteko ikerketak eta hipotesiak ugari izan dira. Baina misterioak hor daude eta galderek tinko jarraitzen dute: nola gerta daiteke herri zibilizatu eta ikasia, munduari Goethe, Kant, Hegel, Beethoven edo Bach eman dizkion herria, deabruzko sarraski odoltsu, anker, zital eta doilor hartan erortzea? Adituek galdera honi erantzuna eman ahal izateko hainbat bide jorratu dituzte. Nazismoa adierazi nahiz, gizarte, kultura, politika edo ekonomiaren alderdiko fenomeno gisa tratatu da. Nazismoaren izatearen errua Versaillesko Hitzarmenari, depresioari, inflazio ikaragarriari, nazio alemanaren parte baten buru-maitasuna galtzeari, komunismoaren suspertzeari, klase ertainak amiltzeari edo beste faktore askori leporatu zaie.

Benetan aipatutako faktore horiek guztiak eta beste askok prozesu horretan oso garrantzi handia izan zutela ez dago ukatzerik. Gainera, faktore horiek guztiak erlazionaturik zeuden. Baina nazismoaren susperraldi ikaragarria ulertzeko, Alemaniako herriaren zirrara «erlijiosoa» in-

dartzeko nahita eraman zuen bidea ulertu behar da. Lortutako erantzuna aldi berean zerebrala eta emoziozkoa izan zen, eta erantzun horrek garunak eta bihotzak, era berezi eta maltzurtean, elkartzen zituen. Benetako erlijio bihurtu zen, eta erlijio bezala, Alemania Lehen Mundu Gerra galtzearen purgatoriotik atera zuen. Eta Italian nahiz Espainian indarrean zeuden antzeko mugimendu totalitarioek baino dinamismo, fanatismo, kemen eta abruzko indar askoz handiagoa lortu zuen. Antzinako Erromako garaiaz gero, Hirugarren Reicha Mendebaldeko historian oinarri erlijioso eta oinarri magikotan (eta ez oinarri politiko, ekonomiko edo sozialetan) eraikitako estatua zela esan daiteke. Eta politikari bat baino gehiago, demagogoa baino gehiago (haien buruzagia, liderra), aztia zela kontsideratu behar da.

Hirugarren Reicharen susperraldia ez zen berez eta besterik gabe etorri, ez eta gizon bakar baten karismari esker ere. Aldiz, oso ongi eta zehazki gertatu ondoren etorri zen. Herri alemana ondo ezagututa, bai eta psikologia ere, Alderdi Naziak alemanen zirrara erlijiosoa zirikatzea eta manipulatzeko erabaki zuen. Alemania naziak filosofia eta ideologia eskaintzeaz gain, kosmologia ere eskaintzen zuen. Adimenarekin batera bihotza, nerbio-sistema eta inkontzientea ukitzen zituen. Helburu horrekin, erlijioaren antzinako teknika asko erabiltzen zuen: zeremonial korapilatsua, kantuak, errepikapen-erritmoak, argia, iluntasuna... zoritxarreko entzute handiko Nurenbergeko bilkura haiek ez ziren gaur egungo mitin politikoak bezala, antzinako Greziako jaialdi erlijiosoen antzeko oso ongi antzez-tutako ekitaldiak baizik.

Dena zegoen neurtuta: uniformeek koloreak, banderak, ikusleen kokapena, gaueko emanaldia, argi-fokuak, islagailuak, sinkronizazioa, hitz batez, dena. Garai hartako zinema-erreportajeetan jendea zoratuta ikusten da, kantuz eta kantuz, «Sieg Heil!» behin eta berriz errepikatuz ia estasi-egoeraraino helduta, jainkoa bezalako Führer-aren aurrean.


Bertaratutakoen aurpegietan zorion ero txundidura ganoragabea, lilura dohatsua, agertzen zen, zenbait eliza

supergarbitako bilkuretan parte hartzen dutenen pertsonen aurpegietan agertzen den bezala. Ez zen erretorika konbentzigarriaren zerbait. Berez Hitlerren erretorikak ez zeukan konbentzigarritasunik. Gehienetan heldutasun gabekoa, errepikakorra, hau da, mami gabekoa, da. Baina esateko erak daukan energia, erritmoa, guztik hipnotikoa da, danborraren kolpeak bezalakoa. Horrek guztiak, denok batera egotearen emozioarekin, toki itxian milaka lagun estututa elkarturik egotearen presioarekin, gehi zere monialak, masa-histeriako egoera sortarazten du, berez izaera erlijiosokoa den debozioa. Hitlerren bilkura haietan agertzen zena, psikologoek egoera mistikoan aurkitzen duten «kontzientziaren aldakuntzako» egoera zen. Hitler bera Mesias beltz bihurtzen da.

Garai hartako aleman askok Hitlerren eginkizun haien alde sasierlijiosoa argi eta garbi ikusten zuten eta horietako askok gustura hartu zuten. Hanburgoko alkateak, adibidez, behin honakoa esan zuen: «Ez dugu apaizen beharrik. Jainkoarekin zuzenean komunikatzeko Adolf Hitler daukagu» (Langer, W.C., *The Mind of Adolf Hitler*, New York, Basic Books, 1972, 55-56 or.).

Edo 1937an kristau alemanen bilkura batean erabaki zena: «Hitlerren hitza Jainkoaren legea da, hura garatzen duten agindu eta legeek jainko-eginpidea daukate» (Ibid, 56. or.).

Bigarren Mundu Gerraren osteko Mendebaldeko kulturaren nazional-sozialismoa muturreko edozein alderdi politiko bezala kontsideratzeko joera izan da, edo, nahi bada, Hirugarren Reicha errotalde txiki batek gidatutako estatu bezala. Beharbada eroak izango ziren, baina horrek ez dio axolarik. Hemen garrantzizkoena honakoa da: ia herri osoa erotu egin zutela, hau da, beren eromena herriari kutsatu ziotela, eta hori posible izan zen gizakiak bere baitan razionala ez den beste alde bat eduki badaukalako.¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com